


B

BARREN

TOKIKOM

Erabakitze unea



Erminio De Carlo Salento pizzeria-taberna

"Osagaiak onak badira, izozkia beti egongo da ona"

Orain dela hamabost urte iritsi zen Erminio Italiatik Elgoibarrera. San Frantzisko kalean ireki zuen taberna lehenengo, eta orain, azken urteotan, Pedro Migel Urruzuno kalean dauka pizzeria. Orain dela bost urte pizzak egiteaz gain, izozkiak egiten hasi zen.

Nolatan hasi zinen izozkiak egiten?

Orain dela bost urte hasi nintzen izozkiak egiten. Italian izozkiak tradizio handia dauka, eta iruditu zitzaidan Elgoibarren ere funtzionatu zezakeela produktu horrek.

Zuk zeuk egiten dituzu izozkiak?

Bai. Zarautzen dagoen izozkitegi italiar batetik ekartzen dizkirate osagaiak, eta gero neuk egiten dut izozkia.

Zein da izozkien sekretua?

Osagaiak eta eskua. Osagaiak onak badira, izozkia beti egongo da ona, bai Italian, bai Elgoibarren eta baita beste edozein lekutan ere. Eskua ere garrantzitsua da. Izoziak egiten ikasteko ikastaroak egin izan ditut. Santanderren egin nuen horietako bat; oso ikastaro ona izan zen, eta asko ikasi nuen. Nire koinatuak izozkiak egiten ditu Italian, eta Italiara egiten nituen bidaiak ere aprobe txatu nituen koinatuarekin izozkiak egiten ikasteko.

Zein da gehien saltzen duzun izozkia?

Jogurt zaporekoa da gehien eskatzen digutena, baina denak saltzen dira ondo.



Elgoibartarrek estimatzen al dute italiar jatekoa?

Bai, jende asko etortzen da pizza jatera, eta etxetik eskatzen dutenak ere asko dira. Oro har esango nuke elgoibartarrek badakitela zer jaten duten. Wok estiloko jatetxe asko zabaldu ziren orain dela urte batzuk, baina poliki-poliki hasi dira ixten. Euskaldunek jatekoaren kultura oso barneratuta dute, eta kalitatezko janaria baloratzen dute.

Zer gehiago eskaintzen du Salentok?

Pizza eta italiar jatorriko jana aurkituko duzue gurean. Aipatu nahi dut pintxoak ere eskaintzen ditugula; pizza zatiak edota calzo-


ne txikiak, esaterako. **Orain uda sasoian terrazan afaltzeko aukera ere eskaintzen dugu.** Hainbat entsalada mota ditugu aukeran, hemen bertako janaria ere bai hemengo nahiago duenarentzat, eta postrerako izozkiaz gain aukera gehiago ere badago. **Eguneko menuak ere baditugu, eta tabernara etortzerik ez dutenei etxera ere eramaten diegu jatekoa.**



SALENTO BAR PIZZERIA

Pedro Migel Urruzuno, 10 - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 740 196
salento_elgoibar@hotmail.com
Facebook/Salento de Carlo



 Etxez etxeko banaketa, ostiral, larunbat igande jaiegun eta jai bezperetan

 Sukaldaritza italiarra

 Pintxo bereziak: pizza zatiak, calzone txikiak...

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Webgunea: www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro
KOLABORATZAILEA Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larranaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
biZi-biZiKal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Ekainaren 21ean, erabakitze eskubidearen alde

Gero eta gertuago dugu ekainaren 21a, mendaroko eta elgoibartarrok, Euskal Herriko milaka eta milaka lagunekin batera, hiriburuak beteko ditugun eguna. Gure kasuan, Donostian dugu hitzordua. Egun horretan, lagun ugari ibiliko da lanean: salmentan (sarrerak, materiala, tikeak, janariak, edariak...), antolaketa lanetan, giroa alaitzen, barren atzean eta abar.

Mendarori eta Elgoibarri material salmenta egokitu zaigu. Elgoibartarrok 20 laguneko 2 txanda egingo ditugu (40 lagun, beraz): bata 11:00etatik 14:00etara eta bestea 14:00etatik 17:00etara.

Zure laguntza ere behar dugu egun horretan dena ondo irten dadin, hortaz, laguntzeko prest bazaude, idatzi, mesedez, helbide hauetara: elgoibarged@gmail.com eta MendaroGed@gmail.com.

Mendaroko eta Elgoibarko Gure Esku Dago

Eskutik Eskura Nafar Produktuen kontserba loteak

Heldu da Errigoraren Eskutik Eskura Nafar Produktuen Kontserba Loteak eskuratu ahal izateko kanpaina. Gure despentsak urte guztirako betetzeko orburuak, menestra, potxak, pikillo piperrak eta zainzuriak aukeran ditugu.

Errigoraren proposamena bertoko produktuak eguneroko kontsumo ohituretara ekartzea da. Zertarako? Kalitatezko jakiak eskuratzeko, ingurumena zaintzeko eta gure nekazari eta ekoizleen ogibidea babesteko. Nola? Merkaturatze bide berri bat zabalduz, auzolanean eta ekoizle zein kontsumitzaileentzat egokia den prezioan.

Kontserbak eskatzeko aukera maiatzaren 26 arte izango dugu. Eskaera egin ostean, Elgoibarren Kultur Etxeko Sotoan egingo dugu banaketa Ekainaren 9an, asteartea, arratsaldeko 17:00etatik

20:00etara. Eska daitezkeen kontserba potoak aurrez aurre ikusi eta pikillo piper eta zainzuriak dastatzeko mahaitxo bat jarriko dugu San Franzisko Iturri ondoan bihar, maiatzaren 23an, larunbata, eguerdian.

Kontserba loteen eskaerak egin ahal izateko, www.errigora.eus webgunetik, kalean jarriko dugun mahaitxora hurbilduz, Elgoibarko hainbat tabernetan utzi ditugun eskuorriak betez edo elgoibar@errigora.eus helbidera idatziz egin daiteke. Besterik gabe, kanpaina honen berri lau haizetara zabaltzea eskertuko genizuke eta... On egin!

Elgoibarko Errigora Lan Taldea

Morkaikoren Eguna

Morkaiko Mendizale Elkartearen izenean eskerrik asko Morkaikoren Egunean lagundu diguzuen guztioi:

Elgoibarko Udala, Kirol patronatua, Udaltzaingoa, Benantzio, Ibilbide inguruko baserriar guztiak, Txino, Jauregi eta Laskurain (Itzulitxoko gidariak), Atxutxiamaikako begiraleak, Usua Taberna, Azaolako Sagardoa, Insalus, Sahatzu, Muruamendiarrak gozotegia, Eroski, Eizagirre okindegia, Gaztetxeko kideak, Alvaro Alonso, Jai-Alai eta Iturri taberna.

Gure lantaldeaz gain zuen laguntza ezinbestekoa izan zen; Jaime Martinez, Aritz Larrañaga, Patricia Navo, Asier Lizarralde, Mariaje Intxausti, Andoni Urbietta eta Mikel Gabilondo.

Bukatzeko, parte-hartzaile guztioi eskerrik asko zuen laguntza eta prestutasunagatik, denon artian egin genuen Morkaikoren Eguna eta mendiaz gozatzeko aukera izan genuen 600 pertsonen. Hurrengo urterako lanian jarraituko degu eta hobetu ahal diranak kontuan izango ditugu! Hurrengo urtera arte!

Morkaiko Mendizale Elkartea

IBILALDIA 2015
BILBON

Malatzak 31,
Igandea

Harro ibili!



Autobusa antolatuta dugu Bilbora joan, egun-pasako plana egin, eta Bizkaiko Itasotei laguntzeko.

Irteera: 09:30 (Sigmako autobus-geitokia)
Itzulera: 19:30

Prezioa: 10 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 8)

Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da: azken eguna: malatzak 27.



Antolatzailea: ELGOIBARKO IZARRA



Laguntzailea: ELGOIBARKO URDIA

elgoibar
biZi-biZiKal

Mausitxa baserria bisitatu du Urkullu lehendakariak

Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak Mausitxa baserria bisitatu zuen San Isidro egunean, eta lehen eskutik jaso zituen gaztagintzari buruzko azalpenak, prozesu guztiaren berri eman zioten-eta Jesus eta Iñaki Ansolak eta Rosa Mari Salegik. Lehendakariak gain, Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua eta Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburordea ere izan ziren, besteak beste, Elgoibarren.



Urpekaritza bataioa antolatu du Ur Bizik hilaren 30erako

Ur Bizi urpekaritza taldeak urpekaritza bataioa antolatu du aurten ere Trinitate jaietarako. Maiatzaren 30ean egingo dute, 10:00etatik 13:00etara bitartean, Olaizaga kiroldegian. Bataioa doan izango da, baina izena eman behar da, hilaren 25a baino lehen, 607 53 04 61 telefonora deituta.

Aire libreko margo lehiaketa antolatu dute biharko

Trinitate jaien barruan, aire libreko margo lehiaketa egingo dute bihar. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte. 8:00etatik 9:00etara bitartean eman behar da izena Kultur Etxeko sotoan, eta 14:00etarako entregatu beharko dira margo-lanak. 14:30 aldera izango da sari banaketa. Informazio gehiago nahi izanez gero, 666 557 538 telefonora deitu daiteke.

Informazio mahaia jarriko du Gure Esku Dagok gaur arratsaldean

Gure Esku Dago ekimenak informazio mahaia jarriko du gaur arratsaldean Kalegoen plazan, 17:30etik aurrera. Oihaletan atxikimendua emateko, kamisetak erosteko edo Anoetarako sarrerak eta autobuserako txartelak erosteko aukera egongo da. Euria egiten badu, Maalako parkean jarriko dute mahaia.

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HHO-1eko matrikulazio aldia zabalik maiatzaren 18tik 29ra

HHO (2015ean jalotakoak) iraillean eta urrian hasteko

HH 1 (2014an jalotakoak) iraillean hasteko



elgoibar ikastola



Zenbakia **Milioi bat euro**



Elgoibarko BM supermerkatua-ren barruan dagoen Rosa liburu-dendan egindako apustu batek milioi bat euroko saria irabazi zuen joan zen astean, Loteria Primitivan. Sei zenbaki asmatu behar dira Primitivako sari nagusia irabazteko, baina euro bat gehiago ordainduta, zazpi zenbakiko apustua egiteko aukera eskaintzen dute. 'Joker' deitzen diote apustu mota horri. Era horretakoa zen Rosa liburu dendan egindako apustua. Astebete pasatu den arren, saltzaileek ez dakite oraindik nor izan den sariduna.

Berbia **Errigora**

Errigora Sareak kontserben kanpaina jarri du martxan, eta horri esker Nafarroako hegoaldean ekoizten diren kontserbak eskainiko dituzte produktoreengandik zuzenean, bitartekaririk gabe. Kontsumo arduratsuagoa sustatu nahi dute, hemengo produktuak kontsumituz. Eskerak errigora.eus webgunearen bitartez egin daitezke, hango formularioa beteta. Eskerak egiteko epea maiatzaren 26an amaituko da. Kontserba loteak ekainaren 9an banatuko dituzte Kultur Etxeko sotoan, eta orduan egin beharko da ordainketa. Lote hauek daude aukeran: Barazki menestra: 720 ml.ko 12 poto (36€), potxak: 720 ml.ko 12 poto (34€), alkatxofak: 720 ml.ko 12 poto (41€), pikillo piperrak: 425 ml.ko 12 poto (35€), pikillo piper ekologikoak: 250 ml.ko 12 poto (41€), zainzuri estrak: 425 ml.ko 10 lata (30€). Informazio gehiagorako elgoibar.errigora@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Finalerdietan da Plazatik Gaztetxera txapelketa

Joan zen zapatuan jokatu zen Plazatik Gaztetxera bertso txapelketaren Elgoibarko kanporaketa. 30 bat lagun bildu ziren afaritarako, eta ondoren, 60 bat lagun izan ziren bertso saioan. Jokin Arriola gaitzartzaileak gidatuta, Manex Astigarraga Bergara eta Maddi Sarasua Laskarai, Antton Aizpurua Aldape eta Ainhoa Sarasua Laskarai, Aitor Bizkarra Ruiz eta Txaber Ormazabal Villanueva eta Amaia Iturriotz Etxaniz eta Mikel Iturriotz Etxanizek osatutako bikoteak izan ziren bertsoetan. Maddi Sarasua eta Manex Astigarraga izan ziren saioko irabazleak, eta zuzenean pasatu dira hurrengo fasera. Finalerdiak gaur eta bihar jokatuko dira, Antzuolan eta Deban.



K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19, behea - Elgoibar
Informazioa eskatzeko, deitu:
943 743 044 edo 653 825 606

UDAKO IKASTAROAK

Ekainaren 29tik uztailaren 24ra

◆ **Haur, gazte eta helduentzako eskolak, orokorrean.**

◆ **Cambridge azterketen prestakuntza.**



Cambridge Unibertsitateko azterketarako batzordeko kidea ES438

2015-2016 ikasturterako matrikulazio epea zabalik

- ◆ Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.
- ◆ Cambridge azterketen prestakuntzarako talde bereziak.
- ◆ Laguntza eskolak: Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa
- ◆ Helduentzako klase orokorrak

Morkaikoren Eguna, errekorrak ontzen

Morkaikoren Eguna izan zen joan zen zapatuan, eta hainbat eta hainbat lagunek mendiaz gozatzeko aukera izan zuten. 230 lagunek egin zuten Elgoibarko Mendi Itzulia, eta itzultxoan aldiz, 220 umek eta 180 nagusik hartu zuten parte. Finalista Egunean, berriz, 151 gaztetxok jaso zituzten dominak urtean zehar igotako mendiengatik. Guztira, 600 lagunetik gora batu zituen Morkaikoren Eguna. Argazki guztiak eta bideoa ikusteko: www.barren.eus



ESKERTZA

MARIA ESTHER UNCILLA ORMAETXEA

2015eko maiatzaren 16an hil zen, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Erabakitzeke unea da

Udal eta Foru Hauteskundeak izango ditugu igandean, eta egun erabakiorrari begira jarrita, Elgoibarren eta Mendaron alkate izateko aurkezten direnen perfilak argitaratu ditugu gaur, hauteskundeei eskainitako tarte berezi honetan. Alkategai guztiakin saiatu gara biltzen elkarrizketak aurrez aurre egiteko, baina PPren ordezkariekin ez dugu lortu: Sofia Vazquez PPren Elgoibarko hautagaiak idatziz bidali du bere profila. Ricardo Alberto Simon PPren Mendaroko alkategaiekin, berriz, ez dugu lortu harremanetan jartzetik –harekin kontaktatzeko modurik ez zutela arrazoitu zuten PPren prentsa bulegotik–. Zerrenda aurkeztu dute, baina, eta hemen ondoan duzue.

Interneten, berriz, elkarrizketa digitalak egin ditugu prest agertu diren alkategaiekin eta www.barren.eus webgunean dituzue guztiak irakurgai. PPKoek ez beste guztiak parte hartu dute.

Domeka gauean webgunean jarriko ditugu Elgoibarko eta Mendaroko emaitzak, eta astelehen goizean ale berezia kaleratuko dugu datu guztiakin. Herriguneko zenbait okindegi eta tabernetan eskuratu ahal izango duzue, doan.

MENDAROKO PPREN ZERRENDA:

1. Ricardo Alberto Simon Vallejo
2. Vanesa Espartero Muñoz
3. Esther María Galiano Diaz
4. Ignacio Ferrer Cervera
5. Ruben Sebastian Dominguez
6. Juan Antonio Ramon-Solans Domínguez
7. José Luis Andreu Onde
8. Antonio Bernad Sebastian
9. Marua Celia Espiau Soriano

Hauteskunde kanpaina

Berrikuntzaren alde egiteko konpromisoa hartu du Markel Olanok



Markel Olano EAJren Gipuzkoako Diputatu Nagusiga Elgoibarren izan zen martitzenean. Herriko zenbait gune esanguratsura bisita egin zuen Olanok eta udalerrir orekatu baterako ardatzak zein diren azaldu zituen. Ekitaldian izan ziren, era berean, Batzar Nagusietako presidentegai Eider Mendoza, Alfredo Etxeberria Elgoibarko jarduneko alkatea eta Elgoibarko eta Mendaroko EAJren alkategaiak: Ane Beitia eta Irune Berasaluze. Berrikuntzaren alde egingo duela agindu zuen Olanok, Gipuzkoan enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzeko. www.gipuzkoa.eus helbidean jarri dute ikusgai Kalegoen plazan egin zuten ekitaldiaren bideoa.

Aire berriari leihoak irekitzeko garaia dela aldarrikatu du EHBilduk



Elgoibarko Udalean azkeneko legegintzaldian egindako Elnaren errepaso egin eta berrirako dituzten asmoen berri eman zuten EHBilduko ordezkariak martitzen arratsaldean Kalegoen plazan egin zuten ekitaldi publikoan. Elgoibarko EH Bilduko hautagaiez gain, Lohitzune Txarola Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariak, Garazi Murgertza Deba-Urola barrutiko hautagaiak eta Pello Urizar EHBilduko legebiltzarkideak hartu zuten parte ekitaldian. Herri-tarrei atea irekitzeko garaia dela esan zuen Pello Urizarrek, “aire berriari leihoak ireki eta ustelkeriari alfonbrak altxatzea”.



Sonia Garcia

EHBilduren Mendaroko alkategaia

“Alaia eta bromazalea” da Sonia Garcia (Mendaro, 1974), “lagunartekoa eta koadrilan ibili zalea”. Pertsona urduria eta sentikorra dela dio, arduratsua eta hunkibera oso. Buruari buelta asko ematen diotenetakoa da, eta aitortu du hori zama ere bazaiola askotan. Dena ondo lotuta izatea gustatzen zaio, gertatu behar ez lukeen hori gertatzeko arriskua ahalik eta txikiena izateko, eta estimatzen du besteek berak erantzungo lukeen maila berean erantzutea. “Exijitu ere egiten diet, eta behar bada ez nuke hala egin beharko, baina... Ikasi beharko nuke hori zaintzen...”, dio bere buruaz. “Dena ondo egin nahi horretan asko estutzen dut neure burua, batzuetan gaixotzeraino”. Tematika da, “behin hasitakoa bukatu arte lagatzea gustatzen ez zaie-



Taldekoa, herri-kirol zalea eta karaokerako grina handikoa

netakoa”, eta kirolerako bada dohaia hori.

Kirolzalea baita Sonia. Realzale amorratua dela aitortu du solasaldia hasi eta bat. Umetatik gustatzen zaio futbola, eta jarraitzen du gaur ere, baina praktikarako nahiago izan ditu beste kirol batzuk. Gaztetan esku-baloian eta atletismoan ibilitakoa da, eta azkeneko lau urteotan herri-kiroletan dihardu, trontzan eta giza probetan bereziki. Senarrarengandik datorkio afizioa [Harri-jasotzen ibilitakoa da Jon Salegi *Sarube*]. Alkatetzaren lortzeaz batera xamar hasi zen plazan. Trinitate-etan egin zuen debuta, Mendaron, eta ordutik erakustaldi batzuk egin ditu, baina ez du bere burua plaza-andretzat. Jende arteko emakumea dela dio, taldekoa. Alkatetzarako liberatu aurretik, Eroskin egiten zuen lan, bezeroekin harreman zuzenean, eta ohituta dago jende artera, nahiz besterik gabe jende aurrean agertze hori ez zaion eroso egiten. “Argazki kameran aurrean jartzea ere ez”, bota du, solasaldia amaitzerako argazkilaria zain izango duela jakitun. Hauteskunde-kampainako eginbeharrak direla badaki, baina, eta ez du trabarik jarri. Garagartzako plazara eramán gaitu, entrenatzen diren lekura, eta 900 kiloko harriari kolpetzeko eskatu dio argazkilaria. Zeregin zailagoetan jardun beharko du alkate batek, baina bistan da kampainako hauek benetan astun zaizkiola. “Ni ez naiz perfil politikodun alkatea. Nik herria bizi dut, politika baino gehiago”, dio.

Zuzenean, alkate izatera

Duela lau urte hasi zen politikagintzan, EHBilduko koaliziorako zerrendaburu izendatu zutenean (EA alderditik aurkeztu zen). Aurrez sekula ibili gabea zen politikan, baina herrigintzan beti sinistu izan duela dio eta kontzientzia duenetik sentimendu abertzalea

beti izan duela. “Beti sentitu naiz hemengoa eta gurasoei eskertu behar diet hori, neba eta biok euskaldun senti gaitezen egindako ahalegin hori”. Etorkinen alaba da Sonia. Valladolideko du sortzez ama eta Madrilgoa aita, eta guraso egin ziren garaia euskara eta euskal kulturarentzat sasoirik onena izan ez arren, ikastolan eskolatu zituzten seme-alabak, etorkinen artean joera haurrak erduetan eskolatzea bazen ere. Ikastolan jaso zuen euskara Soniak eta inguru euskaldunetan topatu zuen bere lekua. 3-4 urterekin hasi zen euskal dantzetan, eta ia 17 bat urtera arte jardun zuen, koadrilakoekin batera.

Koadrila behin baino gehiagotan aipatzen du solasaldian zehar, eta iaz 40 urte bete zituztenean, taldean Londresera egin zuten txangoa ere ez dauka kontatu gabe uzteko, ezta aurten egin asmo duten kinto bazkaria ere. Umezaroaz ari dela, berriz, Mendarozabalera joaten zaizkio oroitzapenak. Hantxe egon zen Mendaroko lehen udaletxea, eta akorduan ditu han bueltan egiten ziren jaialdi eta ospakizunak ere. Mendarozabalen jaiotakoa da bera ere, eta auzo-sentimendu hori bizi du oraindik ere. Pote-poteka, dolar jolasa, soka-saltoa zituzten jolasik estimatuenak, eta Mendarozabalgo plazaz gain, Lizarrolarako bidea eta Santa Kurutz herriko lekuri estimatuenak, beharbada umezaroan asko ibili izan zirelako han. “Han ibiltzen ginen, dantzanteta”. Helduen begiradapetik ezkutatzeko aldera jotzen dute gaur gaztetxoek albo auzoetara, baina gaurkoen aldean, eurek “ume” zirela uste du. “Inuzenteagoak ginen gu. Beti izan gara formalak”.

Dantzant urteak egin arren, piztu, kantuar pizten du Sonia. Mendaroko abesbataz izan ibilitakoa da nerabetan, eta karaoke za-

le amorratua dela aitortu du. Gazteagotan, telebistako urrutiko agintea hartu, musika topera jarri eta orduak ematen zituen bere kasa kantuan, “ingurukoak higuindu arte”. Txisteak kontatzea, mozorrotzea eta imintziok aritzea ere itzel gustatzen zaizkiola dio. “Koadrilako txistezalea izan naiz. Izugarri gustatzen zitzaidan jendea imitatzea. Toshack, Fraga Iribarne... Ez nintzen oso gaizki moldatzen, gainera. Inauterietan ere izugarri disfrutatzen dut, baita inauterietarako prestaketetan ere. Familian jantzi izan gara urte batzuetan. Indar handia hartu dute inauteriek azken urteotan eta gustatzen zait hori”.

Gustatzen zaizkio kalea eta Mendaroko poteo-giroa ere, eta “modu berezian” bizi dituzte santanak, herriko jaiak. Legegintzaldian ere, jaiak “indar berezia” eman dietela uste du: “Saiatu gara jaiak indartzen eta lehen barruan egiten ziren hainbat gauza plazartzan”.

AINARA ARGOTIA



1. Sonia Garcia Raposo
2. Borja Rodriguez Barreras
3. Aitor Basurto Urain
4. Zitoritz Urain Aragon
5. Iñigo Bastida Etxeberría
6. Rosa Maria Urain Elorza
7. Xeber Loiola Mallabiabarrena
8. Rosa Maria Arriola Ulazia
9. Aintzane Lazkano Lizundia

Ordezkoak

1. Asel Unanue Azpiazu
2. Maria Del Mar Martinez Garcia
3. Igor Rey Arrillaga

**“Ez naiz perfil politikodun alkatea.
Herria bizi dut, politika baino gehiago”**



Irune Berasaluze

EAJren Mendaroko alkategaia

Mendaron alkatetzara aurkezten direnen artean perfil politiko handiena du Irune Berasaluzek (Mendaro, 1968). 2001ean iritsi zen lehenengoz zinegotzi izatera eta legegintzaldi bat egin zuen alkatetzan (2007-2011). Legegintzaldi hartan, Juan Jose Ibarretxe Jaurilaritzako lehendakari zen garaian, Euzkadi Buru Batzarrean ere izan zen, EAJren organu gorenean, eta gaur, Gipuzkoako Buru Batzarrean dihardu. Zuzenbide ikasketak ditu, eta abokatu lanetan ibili zen, politikagintzako ardurekin bateragarri izan zitzaion artean. Gaur egun, Jaurilaritzan dihardu lanean.

Beste ezeren gainetik, abertzaletzat du bere burua Irunek eta izaz "arduratsua, oso metodikoa eta dena kontrolpean izan zalea" dela dio, "batzuetan gehiegia ere bai". Irribarre errazekoa izan arren, se-



Arduratsua, txistulari ohia, kantuzalea

rio eta lehor fama duela badaki, baina serioa baino gehiago "formala" dela dio, "arduratsua oso". "Beti sentitu izan dut ezin niela etxekoei hutsik egin, eta saiatu naiz %100 ematen, nahiz eta egin izan ditudan neuk ere erokeria batzuk". Horren arduratsua izatea, batzuetan astuna ere bazaiola aitortu du. "Jende askok nire alderdi publikotik ezagutzen nau eta normala da serio itxura hartzea. Arduratsua izateak naizen bezalakoa agertzea zailtzen dit batzuetan".

Familiakoen eragina

Etiketrik datorkio politikarako zaletasuna. Abertzaletasuna etxean ume-umetatik arnastu duela dio eta oso gazte zenetik argi izan duela EAJ zela bere aukera. "Nire amama Emakume Abertzale Batzako izan zen diktadura garaian eta gurasoak eta osaba zena ere beti ibili dira herrian EAJren bueltan, herrigintzan". Osaba zuena asko aipatzen du elkarrizketan. "Beti izan dut erreferentetzat". Mendiko istripuan hil zen Agustin Berasaluze, Irune alkate izatera iritsi eta hilabetera, eta gogoratze hutsak hunkitu egiten du oraindik iloba. "Uztailaren 20an, nire amaren urtebetetze egunean, esan zigun Piriniotara joatekoa zela. Urtero joaten ziren Tourra ikusi eta mendiren bat egitera. Alkate kargua hartu nuen urtean Santa Anari zapia nola jartzen nion ikusteko ez ote zen egongo bota nion. Ez al zidan horregatiko halakorik egingo! Nik pentsatuko nuen ba zerraldo etorriko zenik!". Santa Ana bezperan, Santio egunez, egin zuten Mendaron Agustin Berasaluzeren aldeko hileta, Salbean. "Santa Anari jarri nion aurrena zapia, eta osabari gero", oroitu du.

Osabaren irudia oso presente izan du ibilbide osoan. Eta haren bidea ere jarraitu du

kultura alorrean, bereziki. Euskal dantzetan ibilitakoa da, elizako abesbatzan ere bai, eta 6 bat urterekin hasi zen txistua jotzen. Are, txistua irakasten jardun zuen aldi batez, eskola hari jarraipena emateko jendea falta zela-eta. Sasoi hartan, sortu gabe zegoen artean Mendaro, eta Guruzpe kultur elkarteak betetzen zuen hein batean Udal baten egitekoa. Jaiak, kultur ekitaldiak... antolatzen zizuten eta Elgoibar eta Mutrikugandik bereiztu eta herria sortzeko batzordea ere handik jaio zen. "Besterik ez zegoen herri batean dena zen Guruzpe". -Mendarok herri izaera beti izan duela iradoki du, esan gabe-. Guruzpe elkarteko presidente izan zela aipatu du, eta alkate izateko herrigintzan jardundakoa izateari oso garrantzizkoa iritzi dio: "Abituak ez du monjea egiten".

Garagartzako plazara ekarri gaitu argazkirako, hangotxeak dituelako oroitzapen gozoenak, umetakoak. Jaiotzez ere hangotxea da. "Ez kale-kalekoa, baina, bai, Garagartzakoa". Garagartzako eliz-aurrea eta gaur Mauri harategia dagoen aurreko plazatxoan eman zituen umezaroa eta nerabezaroa. Eskolatu ere Garagartzan eskolatu zuten, ikastolan. "Ikastolako lehen promozioa izan ginen. Andereño Juanitarekin [Juanita Loiola] hasi ginen, guraso talde baten ekimenez sortutako ikastola hartan", gogoratu du. Hantxe ibili zen solfeoan, euskal dantzetan eta txistuan, Garagartzan, eta gaur ere joaten da musika eskolara, kantuan egitera [Musika eskolako abesbatzan dihardu]. "Denok behar dugu guretzako tartea, eta hori da nire momentua".

Bilbora ikastera joan zenean eten zuen aldi batez Mendarorekin zuen lotura Irune. "Aldendu nintzen pixkat bat, bai". Deustun ikasi zuen Zuzenbidea, eta Xabier Arzalluz

izan zuen irakasle han, politikan bere "erreferente nagusia" izan duena. "Zuzenbide politikoa ematen zigun. Luxua zen".

Zuzentasuna oso berea du Irunek diskurtsuan eta egoteko forman, eta beharbada horregatik harritu zituen horrenbeste herrikideak inauterietan Torrentetarren sendiko mozorrotuta irten zenean. "Bi koleta horikin eta piura harekin ikusi nindue nean, batek baino gehigok esan zidan: 'Egunero, izan beharko zenuke halakoa, Irune'. Beharbada ez dut transmititzen, baina neuk ere badut nire saltoa".

AINARA ARGOTIA



1. Irune Berasaluze Lazkano
2. Maite Apellaniz Arriola
3. Jose Ignacio Arregui Uriá
4. Angel María Iriondo Gabilondo
5. Felipe Castro Gomez (Independientea)
6. Maria Asuncion Barrutia Gastelurrutia (Independientea)
7. Alberto Orbegozo Lazarobaster (Independientea)
8. Alexander Aranberri Babarro
9. Maria Angeles Olazabal Muguruza

Ordezkoak

1. Jose Maria Celaya Ibarlucea
2. Maria Paz Berasaluze Iriondo
3. Juan Antonio Agirretxea Cereza

***"Beharbada ez dut transmititzen,
baina neuk ere badut nire saltoa"***



Jose Antonio Rodriguez

PSE-EEren Mendaroko alkategaia

Galiziarra da sortzez Jose Antonio Rodriguez, baina 6 urte zituenetik Donostian bizi da, Altzan. 45 urte berri ditu eta 5 urteko alaba baten aita da. Etorri oneko gizona da, nahiz ez duen bere burua oso pertsona irekitzat. Hitzeko gizona dela dio, eta lagunengana laguna; “koadrilako gizona, hitz bitan”. Ofizioz autobus gidaria da, eta afizioz, moto zalea eta korrikalari amorratua. “Nire aitak ere autobusak gidatzen egin zuen lan, baina sekula ez nuen pentsatuko nik haren bidea hartuko nuenik”. Autobusetan lan egin aurretik Prosegurren jardun zuen lanean aldi motz batez, baina orduko aldean, orain gustura ari dela aitortu du. “Izugarri gustatzen zait jendearekin dudana hartueman hori”. Mendaron, hirugarren legegintzaldia izango du hau, baina, hala ere, onartzen du gehienentzat bera izango dela Udalerako ordezkari ezezagunena [PPkoa albo batera lagata]. “Egokiena he-



Sinestuna, sukaldari saiatua eta kirolari amorratua

rriak herriko ordezkariak izatea da. Nik beti esan izan dut herriko norbait aurkezten denean gustura utziko diodala lekua, nik ez baitut interes berezirik politikan jarduteko, ez hemen eta ez inon. Baietza eman nuen, iruditzen zaidalako herritarrek aukera guztiak izan behar dituztela eskura, nahi duten alderdiari botoa emateko”.

Kirola, beste ezeren gainetik

Kirolak bizi du Jose Antonio, politikak baino gehiago. Guraso sozialisten semea da, baina politikan “pretensio handirik gabe” hasi zela dio, “gehiegi pentsatu gabe, eta berandu”. 24-25 urte izango zituen koadrilako lagun batek Gazte Sozialistetan sartzea proposatu zionean [30ekin uzten dute], eta 30 urte bete aurretik eskatu zioten lehenengoz PSE-EEren zerrendetan aurkeztea, Ibarrako Udalerako. “Zerrendako hirugarrena nintzen. Nire aurretik zeudena han bertako senar-emazte batzuk ziren, egoera gaiztatu zenean Ibarratik alde egin behar izan zutenak”, oroitu du. Bera jarri zuten orduan zerrendaburu eta garai zaila izan zela aitortu du. “Udal barruan harreman pertsonal ona nuen gainerako ordezkari politikoekin, baina kalean giroa oso gaiztoa zen. Beste garai bat zen”. Mendaron lasaia jardun ahal izan du politikan. Bizkartzainekin ere ibilitakoa da zazpi bat urtez, eta “ohitu” ere egin zen egunero bi lagun ondoan erabiltzera, baina garai hartan ere beldurrik sekula ez duela sentitu adierazi du, nahiz badaezpadako neurriak beti hartu. “Ez zen erraza hala bizitzea, baina beldurra esaten dena inoiz ez dut sentitu nik. Hori bai, oso gogorra da, eta hori garai hartan guraso ez nintzela. Nire ezkontza-egunean 14-15 bat bizkartzain izango

ziren, nireak, emaztearenak eta lagunenenak batuta. Ez diot inori opa hori”.

Momentu zailetan kirola izan du lagunik onena Jose Antoniok. 13-14 urterekin hasi zen atletismoan Atletico San Sebastianen eta 21 urtera arte aritu zen han. Gimnasio-gatik aldatu zuen gero, baina tendinitisak gimnasioa uztera behartu zuen, eta kirolik egin gabe egon ezinak, berriro korrika hastera eraman zuen. “Entrenamendu labor batzuk, herri lasterketa zenbait, Behobia... eta maratoia egiten bukatu nuen, entrenatzaileak lar prestatuta ez nengoela esan bazidan ere”. Lau ordu azpitik egin zuen bere estreinako maratoian (3.50), Donostian, eta ordutik zortzi jokatu ditu lau urtean. “Maratoia jokatzea baino gauza hoberik ez dago”, dio. Futbolearen ere aritzen da, baina, Erreterian, Futbol 7ko txapelketan. Garbi dauka berak: “Kirolak zaildu egiten du pertsona. Okupatuta egoteko balio du, eta gizarte honetako gehiegikeria askotatik babesteko ere bai”. Nerabe garaiaz oroitu du, 80ko hamarkadan drogak herri eta auzo askotan egindako minaz. 14 urte bat nituela nire bueltako asko erori ziren drogen munduan. Ni garai hartan okupatuegi nengoen entrenamenduekin eta abarrekin, eta horrek salbatu ninduela uste dut. Zorionez, nire lagun gertukoenek lortu zuten irteera eta gaur bizimodu normala egiten dute, baina Alza, Bidebieta eta inguruotan asko jausi ziren”. Lehengusua ere hil zitzaion orain urte batzuk, hiesak jota.

Elizan ere topatu zuen babesa Jose Antoniok. 14 bat urterekin, parrokiako Sendotza taldera batu zen, kirolean lagun egindako ezagunek gonbidatuta, eta urte asko egin ditu parrokia bueltan. Oletako parrokiako Kemetrontxo taldeko hezitzaile ere izan zen Alztan hainbat urtez eta sendotzako bi talderen

ardura ere hartu zuen. Gero, Argibide taldea sortu zuten, parrokiako 14 urtez gorako gazteentzat. “Udalekuak egiten genituen, eta parrokiak zuen lokalean geneukan gure gaztelekua”. Sinestuna dela dio, baduela Ebanjelioan federik, nahiz Eliza Katolikoaren hierarkiatik urrun sentitu. “Misiolariengan, parrokiako abadeengan, jesuitengan... sinisten dut nik. Manu Arrue jesuita izan da guretzat beti eredu, gizon gertukoa eta urkoari lagun-tzekoa”. Bakean bizitzen lagundu dio fedea.

Gainerakoan, gizon lasaia eta gertukoa dela dio. Donostiarra izanda, maite ditu sansebastian eguna eta pintxo-potea, eta gozatzeko elkartean, sukaldako lanetan. “Bereziki postreak egitea gustatzen zait, nahiz gero ez ditudan jaten”. Atsegin du koadrilan ibiltzea, eta urtean behin beti batu ohi da uda sasoiari Galizian batu ohi ziren umetako lagunekin. Donostiar sentitu arren, bistan da lotura berezia duela sorterriarekiko. Gaur, Donostiako Galizia Etxeko zuzendaritzakidea da.

AINARA ARGOTIA



1. Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
2. Maria Jose Vicandi Santillana
3. Victor Ivan Santiago Solana
4. M.a Isabel Laviña Garcia
5. Celestino Tobar Gomez
6. Maria Angeles Apalategui
7. Daniel Alfonso Corcuera
8. Eduardo Sainz Ruiz
9. Jose Maria Basarte Oscariz

“Herriko norbait aurkezten denean PSE-EEtik, gustura utziko diot lekua”



Ane Beitia

EAJren Elgoibarko alkategaia

Puntual iritsi da. Horrela gustatzen zaio bera-ri, hitzorduetara ordurako iristea, baina airtortu du gero eta gehiago kostatzen zaiola. Beti korrika, presaka eta ezertarako astirik gabe ibiltzearen sentsazioa dauka, baina azkenean denera iristen da. Aspertzeko denbora hartzea gustatuko litzaioke tarteka, ezer egin gabe egotea, baina badaki egunak 28 ordu izango balitu ere, ez lukeela aspertzeko unerik izango, saltsa guztietan sartzen delako. Iritsi ezin horrek kezka sortzen dio gainera, eta nola edo hala saiatzten da denera iristen. Medikuntza ikasketak egin zituen, eta ikasketak bukatu zituenetik gaur arte hamaika lan egin ditu. Gaur egun prebentzio eta ergonomia teknikari lanetan dihardu Eusko Jaurlaritzako Seguratasun Sailean. 50 urte beteko ditu abuztuan, ezkontuta dago eta hiru seme-alaben ama da. Lana, familia eta politika uztartzea ez da erraza, baina azkenean “goma bezala” luzatzen du denbora,



Lagunartekoa, irakur zalea eta sudoku zale amorratua

eta larri bada ere, denera iristea lortzen du. Hori bai, tarteka gustatzen zaio butakan eseri, "film txar bat" ipini eta deskantsatzea. "Batzuei denbora galtzea iruditzen zaie, baina nik behar izaten dut". Lagunekin eta etxekoekin egotea gustatzen zaio, jatuna da, eta garagardoa izugarri gustatzen zaio. Antzerkia eta musika ere gogoko ditu: "Gidatzen noanean gustuko musika jartzen dut, eta etxeko lanak ere askoz gusturago egiten ditut musika jarrita". Etxekoandrea ere bada Ane, eta ohikoa da kalean poltsaz beteta ikustea: "Beti kargatuta nabil hara eta hona, astoaren antzera". Irakurtzea ere gustatzen zaio; gauez ohera sartzen denean irakurtzen du: "Hori bai, ez galdetu zer irakurtzen ari naizen, sekula ez dut liburuaren izenburua jakiten-eta". Beste bizio bat ere badauka: sudokuak egitea. Eskura iristen zaizkion egunkari guztietako sudokuak egiten ditu, eta trenez bidaiatzen duenean sudokuak egiten joaten da. Ez du asko bidaiatu, baina aspertzeko denbora hori hartzen duenean, Europa iparraldea ezagutzea gustatuko litzaioke.

Gazte sartu zen Ane Beitia politikan, eta etxean ere gaztetatik bizi izan dute politika giroa. Sei neba-arreben artean zaharrena da; bost neska eta mutil bat dira, eta ahizpa gazteenarekin 17 urteko aldea dauka. Lucio Beitia aita Elgoibarko alkatezarako aurkeztu zenean Anek 17 urte zituen eta oraindik ezin izan zuen bozkatu. Garai desberdinak zirela gogoratzen du. Aitak bere lana zeukan, eta lanetik irten-dakoan joaten zen udaletxeko lanak egitera, eta askotan, asteburuetan ere bai. Ane orduantxe hasi zen Bilbon medikuntza ikasten, eta gogoratzen du denboraldi luzeak egiten zituela aita ikusi gabe. Politikariak garai hartan ez ziren liberatzen, eta

Aneren ustez meritu handia zuten bakoitzak bere lana egin eta gero Udala aurrera eramaten zutelako. Aitaren alkatetza garaia ez zen erraza izan Anerentzat. Bera ordurako EGIIn sartuta zegoen, eta gorabehera askorekin gogoratzen du garai hura. Gerora afiliatu zen EAJn, eta betidanik egon da alderdiari oso lotuta. Ion Zubiaurrek kargua utzi zuenean sartu zen Ane Beitia zinegotzi 2010ean, eta azken legegaldian Euskara eta Barne Saileko ardurduna izan da.

Orain, baina, berari dagokio lehen leerroan egotea. EAJk bera aukeratu du alkategai, eta hasieran apur bat beldurtu bazen ere, orain ilusionatuta dago. Familiakoen babes osoa dauka, bai senarrarena eta baita seme-alabena ere bai, eta, nola ez, aitarena. Denek esan diote aurrera egiteko eta EAJk berarengan pentsatu badu, zerbaitegatik izango dela. "Etxeko en babesa oso garrantzitsua da niretzat, eta edozein erabaki hartu aurretik eurekin kontsultatzen dut". Hala ere, badaki hauteskunde eguna "gogorra" izango dela, eta are gogorragoa bezperan 50 urtekoen ospakizuna duela kontuan izanda. Aneri gustatzen zaio lagunekin irtetea, kalean ibiltzea eta jai giroa, beraz, erreflexio eguna festan pasatuko du. Dena dela, hauteskunde eguna goizean goiz hasiko da Anerentzat, eta berandu bukatuko da. Ilusioz, baina aldi berean urduritasunez biziko du eguna. Alkate izatea "ardura handia" da bere ustez, baina alkatetza lortuz gero "lantalde ona" izango du inguruan, eta horrek lasaitzen du apur bat. Entzuten dakiela dio, eta herritarrei entzuteko prest agertu da. Sekretuak gordetzen ere ba omen daki, eta besteen lekuan jartzen ere bai. Askotan besteen arazoak bere egiten ditu, eta horrekin su-

fritzen du. Etxekoen eta ingurukoen lorpenek alaitzen duten bezala, haien minak tristetu egiten du. Genio bizia dauka, baina "gutxitan" ateratzen du; lasaia dela dio, eta genio bizi hori kontrolatzen ikasi duela. "Oso sentibera" da, eta erraz hunkitzen da. Sarri egiten du negar, pozez zein tristuraz, eta domekan ere badaki negar egingo duela, baina oraingoan pozez izatea espero du.

AINHOA ANDONEGI



1. Ane Beitia Arriola
2. Iosu Arraiz Aranburu
3. Maialen Gurrutxaga Uranga
4. Gorka Garaizabal Agirregomezkorta
5. Bittori Zabala Fernandez
6. Andrea Arriola Ferrer
7. Blanca Larrañaga Iriondo
8. Ioseba Arrizabalaga Mendikute
9. Unai Arizmendiarieta Garcia
10. Juan Carlos Arrieta Oregi
11. Silvia Gabiola Colina
12. Juan Jose Galdos Agirremalloa
13. Inga Segurola Soraluze
14. Koldo Galdona Gurrutxaga
15. Amaia Txurruka Okina
16. Santiago Jose Arriola Alberdi
17. Mirari Lizundia Alberdi

Ordezkoak:

1. Jose Jesus Alzaga Ansola
2. Lucia Urrusolo Unzilla
3. Antonio Gurrutxaga Olaberria

"Etxekoen babesa oso garrantzitsua da niretzat"



Jose Luis Ibarzabal

EHBilduren Elgoibarko alkategaia

Irakaskuntza mundutik dator Jose Luis Ibarzabal (Azpeitia, 1959) eta gaur egun, antzerki alorreko arduraduna da Eusko Jaurlaritzan. Psikologia ikasi zuen Salamancan, eta 1982tik 95era bitartean irakasle gisa aritu zen Elgoibar Ikastolan. Ondoren, urtebete egin zuen Udal Euskaltegian lanean, eta 96tik gaur arte Jaurlaritzan dihardu. Bulegoko lana eta sektorearekin harreman zuzena uztartzen ditu bere eguneroko jardunean eta lanetik afizioa egin du. “Bestera izaten da normalean, baina ezagutzeak eraman nau ni arte eszenikoez gozatzerara”.

Alaitzat dauka bere burua, eta barre errazekoa behintzat bada. Egoskorretik ere baduela aitortu du. “Tematia naiz, hasitako gauzak amaitu zalea”. Politikan ere horixe gertatu zaiola dio. Ordezkarri sindikala izan zen irakasle zen garaian, eta politika beti bizi izan du, baina bigarren plano batean. Duela bost urte jauzi egin zuen politikagintzako lehen lerrora, “prozesu berria hasi zenean, ordura arte ez nuelako denarekin bat egiten”. Oposizioan egin ditu azkeneko lau urteak, eta aitortu du “latza” egin zaiola lanetik liberatu gabe egonda oposizioko ordezkarri bati dagozkion erantzuz-



Lagunartekoa eta arte eszenikoen zalea

kizunei arduraz erantzutea, baina taldean gustura aritu dela nabarmendu du. Kalegoen plaza buelta hori izan du bilguneetako bat denbora honetan, eta Elgoibarko leku gustukuren bat aipatzeko eskatu zaionean, ez du zalantzarik egin: “Herri gutxi egongo dira halako plaza dutenak”. Horregatik, beharbada, ez du ulertzen Elgoibarrek estetikoki duen “fama txarra”.

Kalean ibili zalea da Jose Luis. Lagunarteko gizona dela dio, eta parranda zalea ere izan dela horretarako “sasoi hobea” izan duenean. “Orain, astean zehar ez naiz irten, baina asteburuetan gustatzen zait bermuta hartzea eta hori”, azaldu du. Eta nola ez, azpeitiarra izanda, gustatzen zaizkio sarsebastianak eta inauteriak ere. “Niretzat jai erreferentzialak izan dira”. Salamancan ikasten egin zituen bost urteetan hutsik egin gabe etortzen zen inauterietan Azpeitiara. “Goizeko seiretarako diana sakratua izaten zen”. Azkeneko urteotan mexikano jantzita irten izan da Elgoibarren, zapatu gauez.

Danborradan ere irtetzen Azpeitian, Arrantzaleen taldean, eta gogoan dauka behin, “jaietako algara betean eta sarsebastianetako estasiak hartuta” plazan danborra zulatu zueneko. Nekez ahaztuko du gau hura, eta nekez ahaztuko ditu sarsebastian biharamunak ere, lorik egin gabe zuzenean lanera joandako egunak ere izan zirelako. Danborra zulatu zuenetik, baina, ez du danborradan parte hartu, baina urtero eragiten ei dio barruan zerbait. “Lehen, biharamuna jai hartzeko aukerarik ez nuenean, ez nuen hutsik egiten, eta orain, egutegia moldatzeko aukera handiagoa dudanean, ez naiz joaten. Marka da!”. Azpeitiarekiko lotura txikiagoa du orain, lagunarte gehiena eta senide hurbilekoak kanpoan dituelako eta bizimodua El-

goibarren egin duen berak. “Azpeitiar heterodoxoa naiz”. Ez zaizkio zezeketak gustatzen, eta saninazioak ere ez horrenbeste. Saninazioak “eleganteagoak” direla dio; beste jaiak “herrikoagoak” direla. Hala ere, EHBildu alkatetzan dagoenetik gauzak asko aldatu direla uste du: “Beste mugimendu bat sumatzen da”.

Azpeitiarrez esaten den guztitik bada gauza bat gustatzen ez zaiona: itxurakeria. “Esaten diren denak ez dira-eta topikoak; harrokeria puntu bat badago”. Aldiz, azpeitiarren izaera zirrikizale, adarjotzaille eta bromazale hori aldarrikatu du. Berak ba ei du bigarrenetik. “Gustatzen zait bromak egitea, eta esango nuke jasotzen ere badakidala”.

Lasaitasuna eta mendia

Atzera-aurrera askoko bizimodua du Jose Luisek, eta lasaitasuna biziki estimatzen du. Bananduta dago, 24 eta 23 urteko bi seme-alabaren aita da, eta bakarrik bizi da gaur. Aitortu du ez dagoela norberak aukeratuak bakarrik hori baino gauza hoberik. “Egun osoa oso beteta izaten dut, eta etxean ere ordu asko ematen ditut ordenagailu aurrean lanean, bileretan hitz egindakoak jaso eta sormen lanean. Beraz, lasaitasun hori asko eskertzen dut. Ohitu ere egin naiz bakarrik bizitzera, eta horrek badu arrisku bat, maniatiko xamarra bihurtzea, baina neu bakarrik konpondu behar naiz, beraz ez dago arazorik”. Laguna du orain, bera bezala leku berriak ezagutu eta mendian ibili zalea, eta ahal duten aldiro egiten dute ihesaldiren bat. “Nire afizio ezberdinak uztartzen dituen planak gustatzen zaizkit: obraren bat edo ikusi beharrekoren bat ikusi, mendi ibilalditxo bat egin, jatordu on bat egin, nekazal etxeren batean ostatu hartu...”, dio. Irakurtzea du

beste zaletasun handi bat, eta dio egun osoa ematen duela irakurtzen, baina literatura baztertuta duela, denbora faltagatik. “Batzuek ohean irakurtzen dute, baina nik ohera sartu eta ez ditut bost segundo egiten esna nekatuegi egoten naizelako, eta zertarako eduki liburua mesanotxean? Ume-umetatik asko irakurritakoa naiz, hori bai”. Italo Calvino, Tom Sharpe, Julio Cortazar... idazle gustukuak asko ditu, eta obra gogoangarriak ere bai, baina duela zazpi bat urte gaixoaldi batean irakurritako Miguel de Cervantesen *On Kixote Mantxakoa* lana nabarmendu du.

AINARA ARGOITIA



1. Jose Luis Ibarzabal Egibar
2. Iñaki Larrañaga Etxabe
3. Miren Isasmendi Aizpiri
4. Miren Arrate Arrieta Jauregi
5. Joseba Osoro Iturbe
6. Jon Peli Uriguen Ansola
7. Jon Joseba Etxabe Jauregi
8. Amets Izagirre Zabala
9. Joanes Rodriguez Soraluze
10. Nerea Etxeberria Osoro
11. Miren Itziar Goñi Gabilondo
12. Mikel Olaizola Oñederra
13. Maria Julia Arregi Gorrotxategi
14. Ander Soraluze Juaristi
15. Andrea Etxaniz Arregi
16. F. Javier Lazkano Arrillaga
17. Pedro Rubio Urbieta

Ordezkoak

1. Nerea Lendinez Garate
2. Iñaki Alberto Ulazia Iraolagoitia
3. Itsaso Alguacil Garcia

“Niretzat jai erreferentzialak izan dira sarsebastianak eta inauteriak”



Nerea Alustiza

PSE-EEren Elgoibarko alkategaia

Irribarretsu sartu da Nerea Alustiza BARREnera. Eibartarra da, baina Elgoibarrekin lotura handia du, bereziki, azken urteetan Elgoibarko Udaleko zinegotzi kargua betetzen duelako. Bata eta beste agurtu ditu kalean; jendeak ezagutzen du, eta berak ere ezagutzen du jendea. Ama elgoibartarra eta aita eibartarra zituen Nereak. Elkarrizkiria ibili izan diren bi herriren arteko senar-emazte baten fruitua da. 1963an jaio zen, Eibarren. Alaba bakarra da, eta umea zela hil zitzaion aita. Amarekin bizi izan da, 2011n hura ere hil zen arte: “Lotura handia neukan amarekin, eta haren falta handia igartzen dut”. Senide gutxi ditu, 36ko Gerran hil zitzaizkion gehienak, eta begiak malkoz bete zaizkio hori gogoratzean. Ama bakarrik geratu zen, eta orduan alde egin behar izan zuen Eibarrera. Nerearen amak Elgoibar asko maite zuen, eta sarri etortzen zen Elgoibarre: “Ez nau ikusten amak orain Elgoibarren zinegotzi! Poztuko litza-teke!”, esan du hunkituta. 2011n, Ovidio Campello hil zenean, haren lekua hartu zuen Nereak Elgoibarko Udalean, eta hilabete batzuk lehenago hil zen bere ama. Baina Nerea askoz lehenago sartu zen politikan. 1999an izan zen, eta ordutik penak eta poztasunak eman dizkio politikak: “Saiatzen naiz poztasunak izan daitezen gehiago”. Historia ikasketak amaitu ostean Eibarko udaletxean ha-



Eibartarra, historia, arte eta arkeologia zalea

si zen lanean. Sei hilabeterako lehenengo, baina gero kontratua luzatu zioten, eta horrela, kontratu bat bestearen atzetik, urteak egin zituen hainbat lanetan. Baina ordu-ra arteko lanek ez zuten berak ikasitakoarekin zerikusirik eta Miren Aierbe Aranzadiko kide eta Nerearen lagunak esan zion bazela ordua bere ikasketekin zerikusia zeukan lanen bat egiteko. Orduan armagintzari buruzko proiektu bat prestatu zuen, Eibarko armagintza enpresetan 1950. urtea baino lehenagokoak ziren tresnak aztertu eta haien izenak euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko. Udalean aurkeztu zuen, eta onartu egin zioten, eta hortik abiatuta, Eibarko grabadorei buruzko liburu bat egiteko eskaera iritsi zitzaion. Lan horiek bukatu ostean, Eibarko Armeria Eskolako armak garbitzen eta artxibatzien ere egin zuen lan, eta hortan ari zela, Iñaki Arriola Eibarko alkatea zenak egin proposatu zion PSE-EEren zerrendetan aurkezteko. Harrituta geratu zen gonbite harekin. Garai hartan etxearekin arazoak zituzten egurrezkoa eta zaharra zelako, eta uste zuen etxearen gora-beheraren bati buruz hitz egiteko deitu ziola Arriolak, baina pozik hartu zuen proposamena, eta baietza eman zion: “11 urte neramatzan udaletxean lanean, eta ondo ezagutzen nuen Udalaren funtzionamendua”. Aurkeztu eta zinegotzi postua ere eskuratu zuen. Handik urtebetera tokatu zitzaion bere bizitzako lehen kolpe gogorra bizitzea: Arazoak ematen zizkien etxe zahar hark su hartu zuen, bizilagun batek elektro-tresnaren bat piztuta utzi zuelako gau guztian. Goizeko zazpiretan soinean zutena hartu eta 24 familia eraikinari begira egon ziren, dena kiskali zen arte. Garai gogorra izan

zen hura Nerearentzat. Ama eta biek etxe txiki bat alokatu zuten, eta denborarekin lortu zuten egoera hura gainditzea. Hiru legegaldi egin zituen Eibarren, eta besteak beste, Arrateko alkate ere izan zen. Harro esan du Arrateko elizan dagoen Arrateko Amaren irudia, portikoa eta erre-aula bere eskariz berri zuzituzela: “Urteak kostatu zitzaidan lan horretarako dirua lortzea, baina azkenean lortu nuen”. Artea bere pasioetako bat da, historia eta arkeologiarekin batera. Arte eta Historia ikasketak egin zituen, eta indusketetan ere ibili izan da Euskal Herrian, Espainian eta baita Frantzian ere. Ohikoa da Nerea liburu zaharren artean murgilduta aurkitzea artxibategian: “Tecnologia berriak erabiltzen ditut, baina niri arkeologia eta aintzinaroa gustatzen zaizkit”. Gerora, Sigma enpresako artxiboa osatzeko eskatu zieten. Irribarrez esan du garai hartako Elgoibarko enpresa garrantzitsuenaren artxiboa eibartarrek jaso zutela!. Guillermo Garate zen orduan Elgoibarko alkatea, eta lan horretan eibartar bat ari zela jakin zuenean esan zion esaldia ez zaio sekula ahaztuko: *Eibarren txita, beti oiloa*. Eibartarrek handiki eta harro fama dute, baina Nereak bere burua neska xumetzat dauka. Hondartzan pasiatzea gustatzen zaio, eta irakurtzea. Futbola ere jarraitzen du, eta noizean behin joaten da lpuurara, baina ez da zale amorratua. Eibarrek lehenengo mailari eutsiko dion itxaropena dauka: “Arrateko amak egingo du mirariren bat Eibar salbatzeko”. Eibartarrek Arrateko Amarengan dute fede-a, herriko patroia San Andres izan arren; “San Andres elgoibartarrei erositakoa delako”, esan du umorez. Elgoibar eta Eibar arteko norgehiagoka beti izan dela dio, eta

Nereak gogoan dauka bere gurasoak ere elkarri mokoka ibiltzen zirela futbol kontuengatik. “Elgoibarrek beti izan ditu futbolari onak, eta amak adarra jotzen zion aitari” gogoratu du Nereak pozik. Gaur egun gauzak asko aldatu dira, eta Nereak bi herriak dauzka bihotzean, Eibar bizitzeko eta Elgoibar lanerako. Eibar eta Elgoibar artean bizi da, pozik.

AINHOA ANDONEGI



1. Nerea Alustiza Alonso
2. Fernando Suarez Varela
3. Juan Carlos Hernandez Garrido
4. Maria Goretti Fernandez Velicia
5. Juan Jose Bastarrika Garate
6. Francisco Luis Egea Garcia
7. Maria Jose Otaño Martinez de Arenaza
8. Joseba Fernandez Diaz
9. Maria Amalia Sanchez Ortega
10. Angel Dionisio Cabzuelo Segundo
11. Isabel Vazquez Linares
12. Julian Garmendia Aizpitarte
13. Manuel Fernandez Berdasco
14. Gloria Piedad Garcia Ceballos
15. Jose Carlos Rodriguez Martinez
16. Vicente Fernandez Fanjul
17. Miren Goretti Azcarate Errasti

“Arrateko amak egingo du mirariren bat Eibar salbatzeko”



Sofia Vazquez

PPren Elgoibarko alkategaia

PPren apustua Elgoibarko Udalerako



1. Sofia Vazquez Gonçalvez
2. Maria Edurne Fuentes Carbonero
3. Miguel Angel Ciudad Torres
4. Rafael Parro Benito
5. Inmaculada Concepcion Moreno de Frutos
6. Baldomero Lozano Perez
7. Maria Antonia Farelo Alonso
8. Maria Victoria Alonso Rodriguez
9. Francisco Rodriguez Perez
10. Pancraccio Hernandez Peña
11. Ramon Jimenez Gomez
12. Jose Aguilar Pascual
13. Enrique Solana Martinez
14. Maria Victoria Ortego Pintos
15. Maria del Carmen Romero Galende
16. Maria Belen Vega Alvarez
17. Emilio Morillo Carretero

Ordezkoak:

1. Iria Romero Fernandez

Donostian jaio zen Sofia Vazquez orain dela 39 urte, baina umetatik Irunen bizi da. Hiru neba-arreben artean nagusiena da. Administraritzaren teknikari ikasketak egin zituen lehenik, eta ondoren Batxilergoa. Zuzenbidea ikasten hasi zen, baina arrazoi pertsonalak medio, lana lehenetsi eta Zuzenbidea ikasteari utzi zion, aurrerago bukatzeko asmoz. Arrisku profesionalen prebentziorako goi mailako ikasketak egin zituen, eta hortan dihardu lanean, familiak daukan enpresa batean. Egungo gizarteko gehientsuenen antzera, lanpetuta bizi da. Lan kontuak direla-eta, denboraz larri ibiltzen dela esan digu, eta ez du tarterik aurkitu bere agendan BARREN astekariarentzat. Gertutik ezagutu nahi izan dugu Sofia Vazquez, gainerako alkategaiekin batera herritarrei bere aurkezpena egiteko, baina ez du tarterik hartu Elgoibarrera etortzeko, eta BARRENEK ezin izan du berarekin aurrez-aurre egon bere profila ezagutzeko. Idatziz bidali dizkigu bere bizitzari buruzko datu labor batzuk.

Orain dela bost urte sartu zen politika aktiboan. Urtebetez egon zen Irunen zinegotzi karguan, eta azken legegaldia Eibarko Udalean egin du. Lau urtez egon da Eibarren zinegotzi, eta orain Elgoibarko PPren alkategaia izango da.

“Gaztea, modernoa eta egungoa” hitzak erabili ditu bere burua deskribatzeko. Natura gustatzen zaio, lagunekin mendira joatea eta leku berriak ezagutzea. Musika entzutea gogoko du, edozein motatako musika entzuten du baina aitortu du ez daukala abeslari edo musika talde kuttunik. Denbora libre gutxi dauka, baina aisialdirako tarte bat hartzen duenean, hondartzan paseatzea, eguzkia hartzea eta Agatha Christie-ren liburuak irakurtzea gustatzen zaio.

AINHOA ANDONEGI

**Natura gustatzen zaio, lagunekin mendira
joatea eta leku berriak ezagutzea**

Nerea Oteizak irabazi du danborradako kartel lehiaketa

Danborrada zuzenean eskainiko du ETBk

Nerea Oteiza Zubiaurrek irabazi du 2015eko Trinitate jaietako nagusien Danborrada iragartzeko kartel lehiaketa, eta 300 euroko saria jaso du. Zortzi lan aurkeztu dituzte guztira. Oteizak 2013an ere irabazi zuen lehiaketa hau, eta iaz berriz, San Bartolome jaiak iragartzeko kartel lehiaketa irabazi zuen.

Danborrada, 00:00etan

Maiatzaren 30ean izango da aurtengo danborrada, baina ohi baino ordu-erdi beranduago hasiko da; 00:00etan, hain zuzen ere. EITBk zuzenean emango du danborradaren hasiera Kalegoen plaza-tik, eta Bartzelonak eta Athleticek jokatu-ko duten Errege Kopako finala dela-eta, ordu erdi beranduago hasiko da ekitaldia. ETB4 kateak emango du zuzenean, eta



hurrengo egunean, danborradari buruzko saio berezia eskainiko dute ETB1ean, 23:00ak inguruan.

Ikastolako 6B gelakoek ONCEk antolatzen duen lehiaketako Gipuzkoako Txapelketa irabazi dute



Gizarte ekonomiari eta pertsonengan pentsatzen duten enpresei buruzko egunkari-orrilalde bat egitea izan da aurten ONCEk antolatzen duen txapelketaren egitekoa, eta Ikastolako 6B gelakoek irabazi dute lehiaketa Gipuzkoan. Aurtengo helburua Gizarte Ekonomiaren printzipioetan sentsibilizatzea izan da, demokrazian, parekotasunean eta parte-hartzean oinarritutako enpresa-eredu batean alegia, arreta pertsonengan jarritz, kapitalaren eta etekin ekonomikoaren gaintetik. Garaipen horri esker autonomia fasean lehiatuko dira, Arabako San Viator eta Bizkaiko El Carmelo ikastetxearen aurka.

Elgoibarko dantzariak Euskadiko Neskaxena txapelketan parte hartu dute

Ligan puntu gehien eskuratu dituzten hamabost dantzari jokatu zuten zapatuan Euskadiko Neskaxena txapelketa Legazpin, eta tartean Elgoibarko hiru dantzari ere hartu zuten parte. Inazio Bereziartua musika eskolako arduradunen arabera, ondo aritu ziren eta maila ona eman zuten. Datorren asteburuan mutilen txanda izango da, Errenterian, eta han ere Elgoibarko hiru ordezkari hartuko dute parte: Oier Galindo, Gaizka Uranga eta Eneko Gonzalez.



Ibilaldira joateko autobusa antolatu dute

Elgoibarko Izarrak Ibilaldira joateko autobusa antolatu du, Udalak lagunduta. Maiatzaren 31n izango da aurtengo Ibilaldia, Bilbon. Autobusa 9:30ean irtengo da Sigmako autobus geltokitik, eta 19:30ean itzuliko da. Elgoibarko Izarrako bazkideek 8 euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoek, 10 euro. Interesatuak maiatzaren 27rako eman beharko dute izena.

Sanbartolomeetako kartel lehiaketa martxan da

Sanbartolomeetako programaren azala aukeratzeko kartel lehiaketa antolatu du Kultura Sailak. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, norberak nahi duen teknika erabilita. Hori bai, ezinbestean agertu beharko da esaldi hau: "Elgoibar, San Bartolome jaiak 2015". Irabazleak 700 euroko saria jasoko du. Lanak aurkezteko azken eguna uztailaren 3a izango da.

Lau Nazioen eskubaloi txapelketa jokatuko dute IMHko kiroldegian

Ekainaren 6an eta 7an jokatuko da txapelketa

Eskubaloiko emakumezkoen euskal selekzioak Lau Nazioen Torneoa jokatuko du, ekainaren 6an eta 7an, Elgoibarko IMH kiroldegian. Zapatuan jokatuko dira finalerdiak: 17:00etan jokatuko dute Galiziako eta Valentziako selekzioek elkarren aurka, eta 19:00etan Euskadikoak eta Kataluniakoak. Finala domekan jokatuko da, 12:30ean.

Kirol-maila ziurztatuta dagoela esan zuen prentsurrekoan Jose Manuel Ruiz Euskadiko eskubaloi federazioko presidentek. “Zortzigarren edizio hau Katalunian jokatu behar zen berez, iaz Basaurin jokatu baitzen. Kataluniako federaziokoek, baina, antolatu ahal izateko zailtasunak zituztela jakinarazi ziguten eta Elgoibarren jokatu da azkenean, kiroldegi berria gainera”.

Euskadiko selekzioko hautatzaile Imanol Alvarezek prentsurrekoan esan zuenez, orain arteko selekzionik “osoena” da Elgoibarren ikusi ahal izango duguna. “Kubako selekzioaren aurkako partidetan erakutsi dugun mailari eustea izango da gure asmoa”, nabarmendu zuen. Hautatutako jokalarien zerrenda ere eman zuen ezagutzera hautatzaileak eta jokalaririk elgoibartar bat ere badago tartean: Oihane Gomez, Lauko taldeko atezaina.



Eskubaloi txapelketa honekin inauguratuko dute IMH kiroldegia. Azkue auzoan eraiki dute, IMH ikastetxearen eta Makina Erremintaren Museoaren artean. 400 lagunentzako lekua du harmailetan, baina eserlekuen gainaldean zutik ere egon ahal izango dute ikusleek.

Partida garrantzitsuak jokatuko dituzte asteburuan Sanloko hainbat taldek

Tecnifuelle Kadete nesken taldeak Espainiako fasea jokatuko du asteburu honetan, Iruñean. Malkaitz Eskubaloia (Burlata), BM Palencia eta Knet Calasancio (Logroño) taldeekin lehiatu beharko dira elgoibartarrak. Bestalde, Txarriduna infantil mutilek eta Ikus infantil neskek Gipuzkoako txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte asteburuan, eta Astigarraga jubenil neskek Gipuzkoako txapelketako bueltako partida jokatuko dute Bera Beraren kontra, Donostian.

Emaitza onak lortu zituzten Egokran taldeko judoek, Gipuzkoako Judo Txapelketan



Gipuzkoako Judo Txapelketa jokatu zuten joan zen asteburuan Olaizaga kiroldegian, eta Egokran taldeko kideek emaitza onak lortu zituzten. David Mendazonak urrezko domina irabazi zuen 34 kilotik beherakoetan, eta Pedro Berazak ere bai, 48 kilotik beherakoetan. Nerea Cintok, aldiz, brontzezko domina irabazi zuen 52 kilotik beherakoetan atalean. Guztira 150 bat umek hartu zuten parte txapelketan.

Kopa Txapelketako finalerako bi sarrera zozketatuko ditu CD Elgoibarrek

Maiatzaren 30ean Athleticek eta Bartzelonak jokatuko duten Kopa Txapelketako finalerako bi sarrera zozketatuko ditu CD Elgoibarrek. Zozketan parte hartu ahal izateko boletoak Jai Alai tabernan erosi daitezke, baina datorren larunbatean Haundik Mintxetan jokatu behar duen neurketan ere egongo da erosteko aukera izango da. Zozketa maiatzaren 27an egingo dute.

Iñigo Larizek bigarren egin du Zegamako kilometro bertikalean

Irabazleak baino 11 segundo gehiago egin zituen

Zegama Aizkorri Kilometro Bertikala jokatu zuten estreinako zozan den barixakuan (maiatzak 15). Gizonezkoetan Josep Viñas izan zen azkarrena eta Iñigo Larizek egin zuen bigarren denborarik onena, irabazleak baino 11 segundo gehiago, hain justu ere. Larizek 34:27 denbora egin zuen, eta bere atzetik sartu zen Didier Zagok elgoibartarrak baino hamabost segundo gehiago behar izan zituen. 165 korrikalarik lortu zuten lehenengo Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikala amaitzea. Arriaunditik (Zegama) irten eta Aiturira, 1.520 metrora igo behar zuten parte hartzaileek, 1015 metroko desnibela gaindituta. Alabaina, antxitxikiariak ez zi-



ren Atxuriraino iritsi, eguraldi makurra-
ren ondorioz, ibilbidea moztu egin zute-
lako antolatzaileek.

CD Elgoibarko alebinek bigarren egin dute Oxforden jokaturako txapelketan



CD Elgoibarko alebinen taldeak Oxford-en (Britania Handia) jokatu du asteburu honetan. Zazpi taldek hartu dute parte txapelketan, eta elgoibartarrak bigarren lekuan sailkatu dira, Oxford City taldearen atzetik. Ligaxka formatoa izan du txapelketak, eta denek denek kontra jokatu dituzte, hamabi minutuko partidak. Bidaia-
ren kostua 10.850 eurokoa izan da, eta publizitatea, erririk eta laguntzei esker, 6.850 euro batu dituzte. Diru horrekin jokalarik eta entrenatzaileen bidaia ordaindu dute. Guraso eta taldeko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete elgoibartarrei eta babesleei, euren laguntzarik gabe bidaia hau ez litzatekeelako posible izango.

EMAITZAK

FUTBOLA

Martutene 2 – Haundi 0 (Pref.)
Elgoibar 1 – Billabona 2 (Erreg.)
Elgoibar 4 – Billabona 2 (Jub.)
Zumaia 2 – Elgoibar 1 (Kad. A)
Urnieta 4 – Elgoibar 1 (Inf.)
Aretxabaleta 1 – Elgoibar 1 (Inf. Txiki)
Elgoibar 5 – Amaiak Bat 1 (Aleb.)

ESKU PILOTA

Lagunak Txapelketa
Salegi 22 – Gonzalez 10 (Aleb.)
Gallastegi 8 – Maiora 22 (Aleb.)
Gatzagako txapelketa
Lagunak 18 – Oñatikoak 14 (Benj. aurre.)

ESKUBALOI

Lauko Elg. 24 – Arrialdea 19 (Sen. neska.)
SM Egia 30 – Alkorta Elg. 33 (Sen. mut.)
Astigarraga Elg. 26 – Bera Bera 23 (Jub. neska.)
Beristain Elg. 26 – Egia 18 (Jub. mut.)
Legazpi 23 – Tecnifuelle Elg. 30 (Kad. neska.)
Pneumax Elg. 15 – Aloña Mendi 18 (Kad. neska.)
Leizaran 28 – Deca Elg. 26 (Kad. mut.)
San Roke Elg. 26 – Ereintza 9 (Inf. neska.)
Cometel Elg. 15 – Usurbil 9 (Inf. neska.)
Egia 20 – Ikus Elg. 20 (Inf. neska.)
Txarriduna Elg. 28 – Bidasoa A 27 (Inf. mut.)
Bidasoa 23 – Murgil Elg. 24 (Inf. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 23
11:00 Elgoibar – Añorga (Inf. Txiki)
17:30 Haundi – Zarautz (Pref.)
Domeka, 24
11:00 Elgoibar – Soraluze (Aleb.)

ESKUBALOI (Kiroldegian)

Zapatua, 23
11:00 Murgil Elg. – Amenabar (Inf. mut.)
16:30 Deca Elg. – Gure Auzune (Kad. mut.)
18:00 Alkorta Elg. – Ereintza (Sen. mut.)
Domeka, 24
11:30 Sukia Elg. – Aloña Mendi (Aleb. neska.)

LANA

ESKAERA

- Neska eskaintzen da, esperientziarekin, nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. ☎ **680 808 125**
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka edo gauzez. Erreferentziak onak. ☎ **633 401 678**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako, zein pertsona nagusiak zaintzeko; orduka, gauzez edo asteburuetan. ☎ **638 338 816**
- Neska eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. ☎ **615 219 514**
- Neska euskalduna eskaintzen da, orduka lan egiteko. Etxeko lanetarako edo zaintza lanetarako. ☎ **619 041 821 / 943 744 033**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ **602 369 696**
- Emakumea eskaintzen da portalak garbitzeko. ☎ **617 571 210**
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientziarekin. ☎ **631 506 763**
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernari lanerako, sukaldari laguntzaile zein ostalaritzako mantentimendu zerbitzuan lan egiteko. ☎ **661 064 027**
- Pertsona bat eskaintzen da adinekoak zaintzeko, sukalde laguntzaile izateko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **677 259 560**
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. ☎ **632 767 696**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukalde laguntzaile aritzeko. ☎ **606 354 982**
- Irailetik aurrera umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **633 808 931**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Gauzez ere bai. ☎ **688 959 575**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **631 124 942**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Premiazkoa. ☎ **688 682 398**
- Mutila eskaintzen da arotz lanetarako, garbiketarako, sukaldari laguntzaile edo banaketa lanetarako. Gidabaimenarekin. ☎ **698 451 205**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako edo umeak zein nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **631 834 241**

ESKAITZA

- Zerbitzari euskalduna eta sukalde laguntzaile behar dira. Esperientziarekin. CV Gautxo tabernan utzi.
- Udarako zerbitzaria behar da Elgoibarko taberna baterako. Bidali CV: kamareroa@gmail.com

ETXEBIZITZAK

- Apartamentua alokagai Zahara de los Atunesen (Cadiz), hondartzan bertan dago, 2 logelakoa, garajearekin. Ekaina, uztaila, iraila eta urriko, hamabostaldika. ☎ **647 416 206**

- Uztailaren 6tik 19ra hiru gelako pisua hartuko genuke alokairuan. Hiru bikote gara. ☎ **605 083 955**
- Hiru logelako pisua hartuko nuke alokairuan, eta ahal dela altzariekin. ☎ **603 237 932**
- Etxea edo logela bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **636 310 711**
- Pisu eguzkitsua eta berritua alokatzen dut Santa Klaran igogailuarekin. 3 logela, egongela, komuna, balkoia. ☎ **653 863 482 (20:00-22:00)**
- Apartamentua alokatzen dut Errosario kalean. Berritua, altzariekin. ☎ **653 863 482 (20:00-22:00)**

KINTOAK

- Mendaron jaio, bizi edo Mendarorekin lotura berezia izan eta aurten 50 urte betetzen dituztenen kinto bazkaria, ekainaren 13an. 12:00etan batuko gara Kilimoi elkartean eta mokadutxo bat jan eta poteo txiki baten ondoren, Landa erretegian bazkalduko dugu. Ondoren, Dja. Izena emateko 85 euro sartu kontu korronte honetan maiatzaren 29rako. KUTXA: 2095 5054 0091 1485 2864.
- 1949an jaiotako kinto bazkaria, ekainaren 13an, Sigman. 12:30ean argazkia elizako arkupean eta gero luntxa lbai Ondo erretegian. 50 euro sartu behar dira Caixan: 2160 4168 74 2100298970. Izena emateko azken eguna ekainaren 6a.
- 1955ean jaio eta aurten 60 urte egingo dituztenen bazkaria ekainaren

6an, Sigman. 12:00etan Maalako elizan meza, gero argazkia eta luntxa Txarridunan. 60 euro sartu behar dira Laboral Kutxan: 3035 0007 25 0071116963. ☎ **627 760 248 (Manu Konde)**

● Elgoibarren 1960an jaiotako kinto bazkaria ekainaren 6an Txarridunan. 60 euro sartu behar dira Laboral Kutxako kontu honetan: ES96 3035 0007 200071130468.

MOTORRA

- Opel Corsa salgai. Diesel, berde iluna. Merke. ☎ **627 856 989**

BESTELAKOAK

- Duela aste batzuk patinetea ahaztu zitzaigun plazan. Horia da, Fliker markakoa. F3 modeloa. ☎ **627 112 877**
- Urrezko pultsera galdu da ikastolatik Basarterako bidean, Paula izena dauka grabatuta. ☎ **675 705 718**
- San Roke kafetegi kanpoko bankuan bi jertse agertu dira. Kafetegian bertan daude gordeta.
- Urrezko pultsera galdu dut. Izena eta data grabatuta dauzka. Balio sentimental handia. Ordainsaria emango dut. ☎ **639 433 144 / 943 742 225**
- Betaurrekoak galdu nituen maiatzaren 4an San Bartolome kalea eta Mintxeta artean. Estutxe beltza, letra gorriekin. ☎ **619 121 332**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Senar-emazteak gara, eta nire senarrak lur-sail bat jaso du amarengandik dohaintzan. Lur horretan obra egin nahi dugu etorkizunean. Nire galdera honako hau da: lursaila senarrarena izan arren, obra berri hori irabazpidezko ondasun izendatu dezakegu, edo lur-sail hori dohaintzan eman duenak egin behar du hori? Nola egin genezake nik, bikotekideak alegia, obra berri hori egiteko kapitala jarri duela jasota gelditu dadin?

Lur-sail hori dohaintzan jaso duena lur-sailaren beraren jabea ez ezik lur horretan eraikiko denaren jabea ere bada, bikotekideari obra hori egiteko jarri duen dirua itzultzeko betebeharetik libre gelditu gabe (adibidez, kreditua eskatzen bada irabazpidezko ondasunen kontrakoa eskatuko da)

Obra hori irabazpidezkoa izateko, obra berria lur-sailarekin batera izendatu beharko da bikotearena, edo bestela, lur-saila bera jarri lehenengo bikotearen izenean eta gero egin obra berria.

AHOLKUA: Etxaldea bikotearen izenean jartzeko bi modu daude: salerosketa edo dohaintza. Galdetu iezaiozu notarioari zeintzuk diren bien arteko aldeak eta bakoitzak zer gastu suposatzen dituen, ezer egin aurretik.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Marcos Miguel**, 8 urte egin dituzulako. Muxu handi bat gurasoen, amamaren, osaba-izeben eta lehengusuen partez.



• Atzo gure etxeko bihurriak 3 urte. Zorionak, **Unax**, etxekoen eta bereziki Oinatzen partez.



• Zorionak, **Pakita**, bihar 87 urte egingo dituzulako. Lagunen partez, ondo pasa.



• Zorionak gure **Jule** maiteari! Zein azkar pasatu den urtea! Besarkada bat eta mila muxu etxekoen partez.



• Zorionak, **Iker**, maiztaren 21ean 5 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki, Aiert, Maia eta Lierren partez.



• Zorionak, **Alain**, zure zazpigarren urtebetetzean, Aner, ama eta aitaxoren partez.



• Zorionak, **Leire**, atzo 8 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Ane**, etxeko piratari, asteazkenean 8 urte bete zenituelako. Muxuak denon partez.



• Zorionak, **Jare**, maiztaren 25ean 4 urte handi egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoen eta lagunen partez.



• Zorionak, **Ane**, zure bosgarren urtebetetzean. Patxo handi bat familiakoen eta, batez ere, Noraren partez.



• Zorionak, **amama Mariluz**, etxekoen partez, maiztaren 21ean zure urtebetetzea izan delako!



• Zorionak, **Maialen eta Xabat**, 4 urte bete dituzuelako. Familiakoen partez.



Maiatzaren 30ean Urbizi urpekaritza taldeak antolatutako saioan hartuko dugu parte. Animatu, eta eman izena

Gaur, maiatzak 22, haur eta gurasoentzako futbolin txapelketa Ludotekan, 18:00etatik hasita. Izenemateak momentuan bertan.



HERRITARROK garaile!

Maiatzak 22

ostirala, 20:00

Mendaroko Mendarozabal plazan

Hainbat elgoibartarrek bat egin dute Jose Luis Ibarzabal EH Bilduren hautagaiarekin eta bere taldearekin

**EMAN
BOTOA**

22 barixakua

Gure Esku Dago
17:30 Informazio mahaia
Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Maalan).

Dailazoak

18:30 Pirritx eta Porrotx
Mendaro ikastolako jolastokian.

23 zapatua

Trinitate jaiak
9:00 Kaleko margo lehiaketan izenematea
Egur arte tailerrak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.
13:00-14:00 Lanak entregatzea
Kultur Etxeko sotoan.
14:30 Sari banaketa
Kultur Etxeko sotoan.

Informazio saioa

11:00 Heziketa zikloak eta ingeniartza duala IMHn.

24 domeka

'Txikimusika'
17:00 Belceblues
Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren barruan. Kultur Etxeko sotoan.

25 astelehena

Musika
19:00 Ikasturte amaierako kontzertua
Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako kurtso amaierako kontzertua. Musika eskolako auditorioan.

26 martitzena

Musika
19:00 Ikasturte amaierako kontzertua
Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako kurtso amaierako kontzertua. Musika eskolako auditorioan.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
22 Garitaonandia 23 Yudego 24 Yudego 25 Barrenetxea 26 Ibañez 27 Garitaonandia 28 Etxeberria 29 Fernandez	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384



ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«La dama de oro»

22, barixakua: 21:30

23, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

24, domeka: 19:00

25, astelehena: 21:30

ESKERTZA

ANTXONI ETXANIZ ELORZA

*Gure emazte, ama eta amama maitea.
Alaia, irribarretsua eta bihotz zabala gainera.
Asko maite zaitugulako,
gure bihotzean izango zara betirako.*

Etxekoak



2015eko maiatzaren 17an hil zen, 76 urterekin. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



**PSE-EE
PSOE**

**BOTOA
EMAN**

**Gehiengoaren
alde lanean**

Nerea Alustiza
ALUSTIZA

Socialistas
Elgoibar

socialistasguipuzoanos.com

ELGOIBAR ERKINEZ EGINA



ea-j-pnv.eus
gipuzko.eus



EMAN BOTOM

ea-j
PNV